

noaua



80 urte bete dituzten
herritarrak omendu ditu
Gure Pakeak

Mari Carmen Orozek
joskintza tailerra
eskainiko du Santuenean



NOAUA! Festa

Larunbat honetan Usurbilgo frontoian.

“Etorriko zara, ezta? Bestela eamangoaue!”

6. or.

KAFE GARAIA

Joxerra Furundarena,

medikua: “Pandemia
erronka ikaragarri bat
izan da denontzat”

SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2021

Urriak 29, OSTIRALA

ETORKIZUNEKO SAGASTIEN DISEINUA, BILTZEKO
MAKINARIA, BARIETATEA, MENTU-OINAK, SAGASTIEN
FORMATOAK.

Aitor Etxeandia

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenea



SARRERAK: aldez aurretik
usurbilkultura.eus plataforman edo
www.alkartasuna.eus



Albisteak iruditan

Itzalaldia, argindar prezioaren etengabeko garestitzearen aurka

Urriaren 8an gaueko hamarretako kanpai hotsekin batera Jose Luis Zumetaren murala lehenik, elizako kanpandorra gero, eta udaletxea ere bai, ilunpean geratu ziren. Baita hainbat taberna eta etxebizitza ere. Horniduran ez zen inolako matxurarik izan.

Euskal Herrian, Galizan edota Katalunian, argindarraren etengabeko eta gehiegizko garestitzea salatzen eragile politiko, sindikal eta sozial anitzek deitutako ordu erdiko protestarekin bat egin zuen udalerri honek. Udalak astebete lehenagoko udalbatzarrean, mozio bidez.

30 minutuz “elektriketarik deskonektatu!”, hortxe aipatu hiru herrialdeetako eragile politiko hainbatek herritar nahiz erakundeei luzatua zieten gonbita. Argiteria deskonektatu soilik ez, zarata atez



Frontoi inguruan, sirena hotsak entzun ziren urriaren 8an.

ratzeko deia ere egin zegoen eta hala egin zuten hainbat herritarrek balkoie-

tan, nahiz kalean. Frontoi inguruan, sirena hotsak ere entzun ziren.

Laburrean

Kasu berririk ez, eremu berdean

Eremu berdean segitzen du Usurbilek, urriaren 5az geroztik 100.000 biztanleko 14 eguneko 47,56ko intzidentziarekin eta kasu berririk gabe. Urrian momentuz, 3 Covid19 kasu soilik antzeman ditu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak.

Gripearen aurkako txertaketa kanpaina

Arrisku-taldeetan direnentzat abian da. Azaroaren 15etik aurrera edonorentzat. 70 urtetik gorakoek covid19aren aurkako hirugarren dosia ere hartu ahalko dute, gripearen txertoarekin batera. Hitzordua anbulatorioan eska daiteke.

Urriaren 23an, 1955ean jaiotakoen bazkaria

“Urriaren 23an, larunbata, bazkaltzera elkartzeko asmoa dugu 1955ean jaiotak, Atxega jatetxean, eguerdiko 14:00ak aldera”. Bertaratu nahi duenak, aurrez izena eman dezala: 675 00 64 45 (Maribi).

noa

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaueus /// www.noaueus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Disenua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaueus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaueus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Azpirotz

Denden koloreak

Behin baino gehiagotan pasa zait lehen dendaren bat zegoen lokalaren aurretik pasa eta "Usurbil zabalik" irakurtzea. Eta kartelaz haratago joan eta lehen barruan zegoena gogoratzen hasten naiz. Atxegaldeko Mari Pazzen kasuan adibidez, oso garbi gogoratzen ditut janari-dendako bi pasilloak, ezker aldean edukitzen zituen frutak eta bera egoten zen ordaintzeko kaxa. Mari Pazek denda itxitakoan Alkorta harategia hasi zen harategiko jakiez gain janari-dendakoak ere saltzen. Orain biak daude itxita, eta baita Mari Loliren mertzeria, Dibinaren arrandegia eta Marixabelen Truke arropa-denda ere. Auzoetan jolasten ziren umeak desagertu diren bezala, dendak ere desagertu dira.

Gauza bera gertatu da Aginagako Eizarekin, iltze batetik hasi, alpargatatik pasa eta mandarinak ere eros zitezkeenarekin. Auzo guztietan zegoen jendea biltzen zuen janari-denda: Kalejarren Mertxe Aizpuruarena, Eguzkitzaldean Ananea, Olarrondon izena ez baina bertakoak gogoratzen ditudana, Etxealdian Spar, Santuenean antzekoa eta kaxkoan Aitzetanea, Elexperen janari-denda eta... Paris etxearen ondoan zegoena, Tolaretxen, ate handi berde bat pasa eta



"Usurbil zabalik" irakurritakoan, kartelaz haratago joan eta lehen barruan zegoena gogoratzen eta irudikatzen hasten naiz sarritan.

AINHOA AZPIROTZ

"Auzoetan jolasten ziren umeak desagertu diren bezala, dendak ere desagertu dira"

patio moduko batean.

Herriko plano bat hartu eta gorri margotu ditut orain dela urte batzuk irekita eta orain itxita dauden dendak, eta aipatutako janari-dendez gain beste mordoak bat dira: Rich fama-tua, Etxebeste kaleko txurreria eta gaur egungo kafetegien aitzindari izan zen Laxoa, kale nagusiko Goenaga drogeria, bizikletak eta motoak konpontzen zituzten Aranbururen tailerra, bideo-denda, Esnaola drogeria eta aldameneko kinkildegi txikia... Orain dela urte batzuk bi zapata-denda zeuden, Orkoi eta Aritzeta, eta orain bat bera ere ez; zapata konpontzailea bai, baina oinetakoen dendarik ez. Han joaten ginen dantzarako

alpargatak eta abarkak erostera Aritzeta zapata-dendara.

Zein gogoratzen ote da Kalejarren zegoen Elenaren arrandegiaz? Eta Etxebeste kalean zegoen Karmenenaz? Eta jada itxitako Pauma umeen arropa-dendaren aldameneko erloju-dendaz? Eta eliza ondoko eta Santueneako kioskoaz? Eta Irazu kaleko harien dendaz?

Beste denda batzuk lekuz aldatu dira eta horiek urdinez margotu ditut: Iratze Eguzkitzaldean zegoen lehen, orain banku bat dagoen lekuan; Joxe Leonen ileapaindegia orain Oinutsik podologia zentroa dagoen tokian zegoen; burdindegia eta Correos kale nagusian; Arruti harategia lehen Esnaola drogeriaren aldamenean zegoen, ondoren hari-denda bat egon zelarik; iturgintzako produktuak zituzten Portularume dendaren tokian orain txinatarren bazarra dago.

Beste denda batzuen kasuan,

itxi ondoren beste komertzio edo negozio bat ireki dute leku berean. Horiek horiz margotu ditut planoan, eta horien artean daude Atxegaldean Aldatz kirol-denda itxi eta ondoren irekitako Tobyangana; Artzetarren harategiaren lekuan Lizardi liburu-denda; Eguzkitzaldean Alex jantziak-en ordeztu eta puntu! diseinu zerbitzuak; Argilan etxeko elektrotresnen lekuan Laborala; Lurdes kirolak dendaren tokian Labe-Goxo; eta Kantoi eta Giroa arropa-denden lekuan bien artean zegoen Laurok txikia orain Laurok handi bihurtuta. Makina bat gogoratu dira Mapfreren egoitza dagoen lekuan lehen Maria Sokorroren txokoa zegoela, josten ikastera joaten ziren ama asko (aitik ez dut uste...), umeok frontoian ibiltzen ginen bitartean.

Buruari pixka bat eraginda margotutako plano hau osatzen joatea jolas polita izan liteke. Bakoitzak bere kasa egin dezakeena, edo etxeko mahai-bueltan. Mahaikideen adinaren arabera, gainera, oroitzapenak desberdinak izango dira eta horrek sorpresak partekatzeak aukera emango du.

Eta... hemendik hogei urte barru? Nola margotuko ote genuke? Hori ere beste jolas bat izan daiteke.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Errigoraren otarrak eskatzeko garaia

Bueltan dator Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka Errigoraren kanpaina. Urriaren 23tik azaroaren 11ra bideratu ahalko dituzue eskaerak NOAUA! K.E.-ren egoitzan. Hiru otar aukeran, eta otar bakoitzarekin 2022ko egutegia eskuratzeko aukera.

Bildutako laguntzaren laurdena bertako euskalgintzara bideratuko dute. “Ekarpen hori ezinbestekoa da zonaldeko ikas-tolentzatzat eta AEK-ren euskaltegientzatzat, baita sare publikoan D eredua sustatzeko dinamizentzatzat ere. Gainera, Agerraldia egitasmo berriaren iturburu eta sustengu ere bada”, Errigorak ohartarazi duenez.

3 otar aukeran

Saski beltza (betikoa):

■ Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, oliba-olio birjina estra, botila ardoa, melokotoia almibarrean, melokotoi marmelada, tomate frijitua,



“Herriak egiten du herria” aldarriean iragarri dute Errigoraren kanpaina berria.

ESKAERAK

“Urriaren 23tik azaroaren 11ra egin ahal izango dira eskaerak NOAUA!-ren egoitzan”

potxak, teilak, mahats-zukua, piper-mamia, kardua.

■ Prezioa: 55 euro.

Saski berdea (ekologikoa):

■ Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, oliba-olio birjina estra, botila ardoa, ardo-ozpina, dilista lehorrak,

arroza, pasta, barazki-menes-
tra, sagar-zukua, teilak.

■ Prezioa: 65 euro.

Saski zuria (berezia):

■ Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, oliba-olio birjina estra, botila krintza, ardo zuri apartsua, patxarana, pikillo marmelada, txokolatezko zigarretak, patxaran-pastak, polborioak.

■ Prezioa: 75 euro.

Informazio gehiago:

errigora.eus

Ziortza Gazte Elkartearen saioak ostiralean hasiko dira

Ziortza Gazte Elkartea martxan da aurten ere gazteek aisialdiaz disfrutatzeko aukera izan dezaten. Ostiral honetan bertan ekingo diote lehen saioari DBH1 eta DBH3ko ikasleek.

DBH1ekoek 19:00etan izango dituzte hitzorduak, eta DBH3koek 20:30etik aurrera. Ordubeteko saioak eskainiko dituzte.

DBH2 eta DBH4ko ikasleak, datorren astean

Datorren astean hasiko dira DBH2 eta DBH4ko ikasleak. Gazteenek 19:00etan izango dute hitzordua, eta zaharrenek 20:30ean. Gogoan izan, aurtengo saioak Potxoenean izan-

go dira.

Izena eman behar da aldez aurretik

Saioetan parte hartu ahal izateko izena ematea ezinbestekoa izango da. Izen-ematea egin gabe ezingo da saioetan parte hartu. Horretarako, zior-tzage@gmail.com helbidera mezu bat bidali beharko da atzera izen-emate orria jasotzeko. Ziortza Gazte Elkartearen sare sozialetan ere inprimakia eskuragarri egongo da. Lehen saiorako betetzea komeni da, bestela, bigarrenetan ezingo da baimenik gabe parte hartu.

Aurten Potxoenean

Urtero antolatzen ditu Ziortza Gazte Elkartek DBHko gaz-



Jolasteko abagunea izango dute gazteek, eztabaidatzeko zein tailer bereziak egiteko.

teentzako saioak harremanak indartu eta aisialdian gazteek hainbat kontu lan ditzaten. Jolasteko abagunea izango dute gazteek, eztabaidatzeko zein tailer bereziak egiteko. Gazteak Potxoenean hurbiltzea baino ez zaie falta Ziortzako kideei kurtsoari hasiera gogotsu emateko.

Elkarbizitza planaren aurkezpena

Iaz landutako “Usurbilgo jatorri aniztasuna eta elkarbizitza lantzen” izeneko diagnositik abiatuta, aurrera begirako urratsak definitzen dituen plana aurkeztuko du Usurbilgo Udalak urriaren 26an 18:00etan Sutegiko auditorioan. Hitzordura joan nahi duenak izena eman dezake usurbilkultura.eus plataforma bidez edo 943 377 110 telefono zenbakian. Ez da aurkezpen soila izango. “Gaiak sakontzeko interesa duten herritarren talde bat osatzea ere” bai baita hitzordu honen beste asmoa.

Liburuak, irakurleen zain

Ostiral eguerdian Artzabalen ateratako argazkia; bi liburu, Anjel Lertxundiren ‘Hama-seigarrenean, aidanez’ eta Anna Gavaldaren ‘La amaba’ sortze lanak irakurleen zain ziren. Nork etxeratu, eta esku artean hartuko zain.

2001ean Amerikako Estatu Batuetan martxan jarritako “bookcrossing” edo liburu trukea sustatzen duen ekimena abiarazi eta sare sozia-
len bidez berri eman zuena Ana Merino herritarra izan zen.

Nork bere liburuak leku publiko batean uztean datza ekintzak, gero beste irakur-zale batek eskuratu eta irakurtzeko. Eta hark kateari segida eman behar gero.



Bi liburuok ostiralean agertu ziren Artzabalen.

Joxerra Furundarena, medikua: “Pandemia erronka ikaragarri bat izan da denontzat”

Joxerra Furundarena medikua da ogibidez baina saltsa askotan ikusi dugu azken urteotan. NOAUA!ren sorreran lagundu zuen eta Jexux Artze Kultur Elkartearen sortzaileetako bat izan zen. Zinegotzi lanetan ere aritu zen hainbat urtez. Patxadaz aritu gara honetaz eta hartaz hizketan. Kafe garaian, giro atsegin batean.

NOAUA! “Kafe garaia” izeneko atal hau NOAUA!ren urteurrenaren aitzakian abiarazi dugu. Beraz, ezer baino lehen: non zeunden duela 25 urte?

Joxerra Furundarena: Urte horietan kanpora joan beharra tokatu zitzaidan. Gasteizen egongo nintzen lanean, Txagorritxu Ospitalean. Bizpahiru urte egin nituen bertan. Go-goan dut errepidean ibiltzen nintzela egunero, joan eta etorri. Orduantxe jaio zen semea eta Usurbilen bizitzaren jarraitu nahi nuen. Geroxeago jaio zen alaba. Gisa horretako oroitzapenak dauzkat gehienbat; Gasteizi lotutakoak.

Medikua zara ogibidez. Pandemian zehar osasun neurriak mesfidantzaz hartu dituztenei zer esango zenieke?



Aberatsak ez diren herrialdeetara ere txertaketa zabaldu beharko litzatekeela uste du Joxerra Furundarenak.

JOXERRA FURUNDARENA

“Pandemia mundu mailako arazo bat da eta konponbideak ere hala izan behar du. Denok jarri behar dugu gure partetik”

Denontzat izan da erronka ikaragarri bat. Mundu mailakoa. Nik esango nieke kontuan hartzeko herrialde aberats ba-

tean bizi garela, ikaragarriko zortea daukagula eta jarri diren baliabideez baliatzeko (txertoez ari da).

Txertaketa oso-oso garrantzitsua da gaixotasunari aurre egiteko eta baliabide horiek aprobetxatu behar ditugu. Denok edo ia gehienok ez bagara txertatzen, azkenean ez da eraginkorra izango.

Solidarioak ere izan behar dugu. Konturatu gaitzen gu orain egiten ari garena beste

lurralde batzuetara ere zabaldu behar dela, beste herrialdeetara. Ni irudi horrekin geldituko nintzateke, zer-nolako zortea daukagun bizi garen lekuan bizita. Mesedez, aldeko jarrerak hartu behar dira gaixotasunari aurre egiteko, eta ez bakarrik hemen, mundu osoan hartu behar dira. Mundu mailako arazo bat da eta konponbideak ere hala izan behar du. Denok jarri behar dugu gure partetik.

‘Osagaiz’, osasun arloko artikuluak plazaratzen dituen aldizkaria

NOAUA! Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeko kidea zara. Elkarrekin honek plazaratzen duen Osagaiz euskarazko aldizkaria zuzentzen duzu. Zein helbururekin abiarazi zenuten argitalpena?

Joxerra Furundarena: Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea orain dela 30 bat urte sortu zen eta helburuetako bat zen osasun zientziei lotutako aldizkari bat atera-

zte. Konturatuta geunden oso zaila zela eta oso garestia ere bai. Beti kajoian geratzen zen proiektuetako bat hori zen, aldizkariarena.

Azken urteotako aurrerapen teknologikoei esker, aldizkaria modu digitalean ateratzeko aukera zegoela ikusi genuen. Horrek kostuak asko leuntzen zituelako. Talde eragile bat sortu zen eta erabaki genuen aurrera egitea. Frogatu dugu

posible dela urtean bi zenbaki arrunt ateratzea. Osasun zientzia askotatik jasotako artikulu originalak plazaratzen ditugu, goi mailakoak. Espzialistentzat sortutakoak.

Medikuntza, erizaintza, farmazia, fisioterapia eta tankerako osasun zientzietan lantzen diren ikerketa horiei guztiei bide bat emateko sortu dugu Osagaiz; artikulu horiek euskaraz argitaratuak izan

daitezen. Oraingoz aurrera goaz eta pozik.

Batzuetan lana pilatu egiten zaigu, borondatezko lana baita eta inork ez du ezer kobratzen, baina konturatu gara aletxo bat jartzten ari garela euskarak osasun munduan ere aurrera egin dezan. Sarea pixkanaka-pixkanaka handitzen ari da gainera. Ilusio handiarekin gabilta.

“Ez Dok Amairuko erakusketaren inaugurazioan bizirik zeuden taldekide asko ekartzea lortu genuen”

NOAUA! Jexux Artze Kultur Elkarteko kide zara. Txalapartari usurbildarra hil eta gutxira osatu zenuten elkarte. “Ez Dok Amairu” erakusketa izan zen elkarte gisa antolatu zenuten lehen ekimenetako bat. Nola gogoratzen dituzu orduko erakusketaren prestaketa lanak?

Joxerra Furundarena: “Ez Dok Amairu” mugimenduak asko erakartzen ninduen eta oso gogoan dut erakusketa antolatu genueneko garaia. Egia esan, hasi ginenean ez nuen espero horrelako muntaketan sartuko ginenik.

Xabier Leterekin, Joxan Artzerekin, Beatrizek Jexuxi buruz esaten zigunarekin... Batekin eta bestearekin hitz egiten hasi ginen. Konturatu orduko, erakusketa txukun eta handi bat egiteko materiala batu genuen. Handi samarra egin genuen eta, gainera, lortu genuen artean bizirik zeuden kideak erakusketaren



“Batekin eta bestearekin hizketan hasi ginen. Xabier Leterekin, Joxan Artzerekin,... Konturatu orduko, erakusketa txukun bat egiteko materiala batu genuen”.

JOXERRA FURUNDARENA

**Jexux Artze
Kultur Elkartearen
erakusketak harrera
ederra izan zuen.
“Gogoan dut ilusioa
egin ziela kide gehienei”**

inauguraziora ekartzea. Ikaragarria izan zen; beraientzat

ere bai. Gogoan dut gehienei ilusio handia egin ziela. Bartzuk aspalditik elkar ikusi gabe zeuden, eta guretzat ere ikaragarria izan zen horiek denak herrira ekarri izana erakusketa ikustera, beraien iritziak bertatik bertara jasotzea... Oso ekimen garrantzitsua izan zen eta nik hala dut gogoan.

Argazki berriak ateratzea lortu genuen eta taldekideak

berriro elkarrekin erretratatzeari. Ordura arte, “Ez Dok Amairuko” argazki famatu bat zegoen. Aurrerantzean, 2003an eginikoa ere hortxe izango da.

Amaitzeko, esango nuke beraien asebetetzeak gu ere ase gintuela. Erabat.

Txalaparta eskola antolatu dute, Zumarterekin elkarlanean

Jexux Artze Kultur Elkartea, Usurbilgo Udalarekin eta Zumarte Musika Eskolarekin elkarlanean, 2021-22 ikasturte honetarako Txalaparta Eskola abiaraztera doa.

Izen-ematea zabalik da

Izena eman edo informazio gehiagorako:

txalapartairakasle@gmail.com
695 716 878.

“Garrantzia handia dauka NOAUA! astekariak, baina paperekoa bakarrik ez da nahikoa izango”

NOAUA! Euskararen normalizazioan eragiteko sortu zen NOAUA! Kultur Elkartea. Hedabide gisa, paperean eta sarean ari gara. Elkarte bezala, kultura arloan eta aisialdian. Bistan da lan asko dagoela egiteko oraindik. 25 urteko ikuspegia duzun aldetik, NOAUA!k zer du faltan eta zer du soberan?

Joxerra Furundarena: Lortu beharko da komunikabide gehienekin gertatzen ari dena, euskarri ezberdinekin asmatzea. Nik oraindik paperean irakurtzen dut erosoan. Eta nire gurasoek zein adineko

jendeak, zer esanik ez. Pape-rean irakurtzen dute NOAUA! eta horrek aukera polita ematen die euskarazko prentsa irakurtzeko. Beraz, papera, oraingoz behintzat, mantendu beharko litzateke.

Gazteekin kontrako joera ikusten dut. Aldizkaria ez dute ia hartu ere egiten eta telefono mugikor bidez ikusten eta irakurtzen dute. Momentu honetan mugikorretik jasotzen da informazio gehien, web orrian sartuta edo sare sozialen bidez. Hor asmatu beharko da, presentzia ziurtatu eta irakurriak izateko.

Gainontzean, aldizkaria Usurbilgo etxe guztietara iristen da. Hori gozamina da, etxean horrelako aldizkari bat jaso ahal izatea. Niri izugarria iruditzen zait. Oso garrantzitsua da baina esan dudana bezala, paperean eginiko ahal-egina ez da nahikoa izango. Mugikorretatik iritsi beharko da eta iritsi behar da gazteen-gana. Lortu behar da iristea herriko albisteekin eta herriko ekimenekin, eta hor dago erroka. Gazteak ere bazkide egitera anima daitezen, kontura daitezen zein garrantzitsua den Kultur Elkartea

bizirik edukitzea. Bestela, ez da iritsiko aldizkaririk eta ez dira iritsiko NOAUA!k antolatzen dituen beste hainbat kultur ekitaldi. Hori dena lortu behar dugu transmititzea gazteei. Akaso irudituko zaie dena ezer egin gabe heltzen dela guregana, eta ez da horrela. Lan asko dago atzetik.

Antzeko kezka dugu elkar-tearen inguruan gabiltzan arloan.

Zorionak NOAUA!ri, 25 urte bete dituelako, eta beste 25 egin ditzala gutxienez.

Mari Carmen Oroz: “Nire pasioa ogibide bihurtu nuen”

Joskintza tailerra antolatu dute ostiral honetarako eta datorrenerako Santuenean, hilaren 22an eta 29an. Mari Carmen Oroz izango da klaseak emango dituen bi egunetan, 17:00-19:00 bitarte. Jostuna izan zen duela urte batzuk erretiroa hartu zuen arte, eta bi eguneko ikastaroa eskaintzera dator orain. 10 euro ordaindu beharko da ikastaroan parte hartu ahal izateko, eta 670 027 731 telefono zenbakiarekin jarri behar da harremanetan horretarako. Mari Carmen Orozekin izan da NOAUA! tailerraren berri izateko.

NOAUA! Josten ikasteko hastapen tailerra antolatu duzue. Zer ikasi ahal izango dute bertara hurbildutakoek?

Mari Carmen Oroz: Printzipioz bi hastapen tailer izango dira. Gerora ez dakit gehiago egiterik izango dudana, baina printzipioz urriaren 22koa eta 29koa izango dira. Gaur emakume batekin topo egin dut eta hauraren prakak konpontzen ikasteko beharra duela adierazi dit. Orokorrean, gisa horretako gauzak egiten ikasiko dugu, gauza erraz eta erabilgarriak. Etxean josteko



Mari Carmen Orozek joskintza tailerra eskainiko du hilaren 22an eta 29an Santuenean.

MARI CARMEN OROZ

“Bakoitzaren beharretara egokitutako klaseak izango dira”

makina dutenentzat interesgarria izan daiteke oinarri batzuk ikastea edo besteren bati eskuz jostea gehiago interesatzen bazaio, horixe erakutsiko diot.

Kreimailera jartzen ikasi nahi duenari ere erakutsiko diot hori edo prakei petatxoak jartzen ikasi nahi duenarentzat ere lekua egongo da. Bi egunetan ezin da askoz gehiago ikasi. Patroiak egiten erakustea asko gustatzen zait, baina bi egun gutxiegi dira hori lantzeko, eta gainera, jende gutxiagori interesatzen zaio hori. Beraz,

bakoitzaren beharretara egokitutako klaseak izango dira.

Nori dago zuzenduta tailerra?

Edonorentzat da. Josten ikasi nahi duen edonor ongi etorria izango da.

Jostuna zara edo izan zinen?

Betidanik jostuna izan naiz. Tailer bat izan nuen Santuenean urte luzeetan, eta denetik egiten genuen: patroiak, konponketak... klaseak ematen nituen eta jendeari bere arropa propioa egiten erakusten nion. Jende gazte pila bat hurbiltzen zen josten ikastera, eta garairik onenetan 20-25 pertsonako klaseak ere eman nituen. Gero, jendea zahartu egin zen eta utzi egin zituen klaseak, eta beraz, konponketak egiten jarraitu nuen eta arropak egiten kaleko jendearentzat. Jostuna eta irakaslea izan nintzen erretiroa hartu nuen arte.

Gaur egun, oraindik josten duzu?

Ez, jada josteari utzi diot, zahartu egin bainaiz. Aste honetan eta datorrenean bezala, egun jakin batzuetan klaseak emateko ez daukat inolako arazorik, baina jada jostun bizitza atzean utzita daukat.

“Jostun titulua Donostian atera nuen”

NOAUA! Noiz ikasi zenuen josten? Etxetik datorkizu zaletasuna akaso?

Mari Carmen Oroz: Betidanik gustatu izan zait asko. Arropa egiten neure kasa ikasi nuen, klaseetara joan gabe. Arropa jakin bat hartu eta askatu egiten nuen, eta horrela, nola eginda ze-

goen ikusita, hurrengoa egiten nuen. Etxean, amak ez zuen gehiegi josten, eta beraz, ez datorkit hortik. Helduago egin nintzenean, Donostian jostun titulua atera nuen. Hara joaterako jada banekien josten eta ez dakit tituluak gehiegi balio izan ote zidan, praktikarekin ikasten baita josten. Nire se-

me-alaben arropa guztiak nik egiten nituen txikiak zirenean.

Beraz, joskintza zure bizitza izan da.

Bai, erabat. 40 urte ingururekin ireki nuen tailerra, behin seme-alabak hazita zeudenean. Plazer bat da gustoko duzun zerbait egin, eta jendeak zure pasio

hori partekatu nahi izatea. Oso momentu onak pasatu nituen tailerrean josten irakasten eta jende asko ezagutzeko aukera ere eman dit josketak. Nire pasioa lan bihurtu nuen. Gustoko duzunetik bizi zarenean, lan egite hori ez dela lan egitea zioen nire senarrak, eta arrazoi guztia zuen.



Ofizioen Gida



Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

urdaintzi.euskalnet.net

• ERAIKUNTZAK • OBRAK
• BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra



Telefonia
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behe, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

• gremioen koordinaketa
• berritze lanak
• sukaldeak
• komunak

943 530 337
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L

• FATXADAK ETA TEILATUAK
• ERAIKUNTZAK • BARRUKO BERRIKUNTZAK
• URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Antonio
URRUZOLA
AROTZEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industriaidea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROTZEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

USURBIL
J.R. IBARGOEN S.L.

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoen.arotzgi.net jr.ibargoen@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

antenas
Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943

Pintapox, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825



TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

• ITURGIN LAN OROKORRAK • DUTZAKO HANPARAK
• KONFINDATZAKO OREHIOAK • KONUNEKO ALTZARIARIK

Bordaberri kalea 1, 1 behe • 943 36 80 04

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak
• beira bikoitza • segurtasun beirak
• dutxa-itxiturak eta irrastailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

maiz
hornigaiak

• TRESNERIA ETA ERREMINTAK
• EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

euministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

25 urteotako bidelagunen topaleku bilakatuko da larunbateko NOAUA!Fest

Mende laurdena ospatu, bidelagun izan dituenak eskertu eta aurrera begira elkarrekin bidea egiten jarraitzeko topagune berezia izan nahi du NOAUA! Kultur Elkarateak larunbaterako, urriak 23, 18:30ean frontoian antolatu duen “NOAUA!Fest” hitzordu berezia. Kultur elkarteko dinamizatzailerak Alaitz Aizpurua Labakak dakartza xehetasunak lerrootan.

NOAUA! Zer da ekitaldi berezi honekin islatu nahi dena?

Alaitz Aizpurua Labaka: Urtemuga, urte hauetan guztietan ondoan izan ditugunekin; hasierako sortzaile haiekin, kolaboratzaileekin, langileekin, gure ondoan egon diren eragile, norbanako, bazkideekin... 25. urteurrenak atzetik pertsona asko ditu, haiek guztiak eskertu nahi genituzke eta azken aldi honetan zaila izan zaigun elkargunea sortu.

Urtemugarako “herria herri-tik, beste 25 baietz!” baliatzen ari da NOAUA!. Herria omendu nahi da beraz?

Azkenean NOAUA! Kultur Elkarateak herri hori gabe ez du zentzurik. Hala sortu zen, herritarren parte hartze ika-



Eskerrak eman eta osatutako bidea ospatzeko, festa modukoa antolatu dugu: larunbat honetan, 18:30ean frontoian.

ALAITZ AIZPURUA

“25. urteurrenak atzetik pertsona asko ditu, haiek guztiak eskertu nahi genituzke eta azken aldi honetan zaila izan zaigun elkargunea sortu”

ragarri batekin. Auzolanaren adibide argi bat izan zen eta izan da gerora ere. Ekitaldirako gonbidapenak prestatzen hasi garenean, ikaragarria da ikustea zenbat jendeke parte hartu duen 25 urte hauetan. Askotan ahaz-

ten zaiguna, bazkideak duen garrantzia; NOAUA! K.E.-k ia 500 bazkide ditu baina 500 bazkideren langa hori ere gainditu zuen bere garaian. Une batean biztanleriaren %10-a NOAUA! K.E.-ren bazkide izatea esanguratsua da. Atxikimendu horren beharra izaten segitzen dugu. Bazkideetza kanpaina eta urteurrena elkar lotu izanaren arrazoia nagusiki hori da.

Transmisio ekitaldia ere izango da beraz, aurrera begirako atxikimendu horren beharrean sakonduko duena.

25 urte hauetan ezinbestekoa izan da eta hurrengo 25 urteotan ere hala izango da. Kontziente izan behar gara Usurbilgo belaunaldi batek beti ezagutu izan duela NOAUA! Usurbilen. Baina hori ez da posible atxikimendu edo babes hori gabe, transmisio hori ezinbestekoa da. Aurrera begira jarrita; NOAUA! Kultur Elkaratearen zutabeetako bat izan da aldizkaria, eta gerora webgunea zein sare sozialak; kultura eta euskara izango genuke bigarren zutabea eta hirugarrena aisialdia eta gazteak.

“Herritarren parte hartzea bultzatu nahi dugu, umoretik”

NOAUA!Fest-ari begira bidalitako gonbidapen mezuak zer nolako erantzunak jasotzen ari dira?

Kanpaina abian jartzeko bideo bat egin genuen. Parte hartzeko deialditxo bat egin eta erantzun ona izan zuen. Han elkartu ginen artean ikusten zen bazela gogo...

Zerbait gehiagorako gogoz

geratu ziren?

Sentsazio jori jaso genuen. Orain ere erantzuna oso ona izaten ari da. Ahalegin berezia egin dugu; gonbidapenak 25 urteotan parte hartu duten ahalik eta gehienei bidaltzen saiatu gara eta dagoeneko baieztatu kopuru polita jaso dugu.

Publikoa ez da besoak gurutzatuturik egongo.

Ekitaldia antolatzerakoan argi izan dugu, herritarren parte hartzea bultzatu nahi genuela, umoretik. Euskaldunok ere gustuko dugu mahai inguru batean egotea eta hori guztia jasoko du ekitaldi horrek.

Zein dago gonbidatua ekitaldira? NOAUA! bere sentitzen duen herritar oro. Antolaketa lanak errazteko ahal bada aurrez ize-

na emanda hobeto, bestela bertaratu frontoira.

Hemen ez dira bukatuko urteurreneko ospakizunak. Kulturaldia ate joka dugu.

NOAUA!-rentzako urteko ziklo garrantzitsuenetakoa dugu. Egitaraua prest dago, berezia izango da eta 25 urteak ospatzeko ere aprobe-txatuko dugu.

NOAUA! “Diyo” ere izan zitekeen

25 urte bete dituen kultur elkarte honek gordean zuen istorio eder bat segidan. 1996. urtean proiektu hau abiarazi zutenek oso go-goan izango dute.

NOAUA! herritik sortu zen proiektua izan zela argi adierazten duen beste zantzu bat dugu honakoa: izenarena. Aldizkariari, kultur elkarteari izena jarri behar eta parte hartze prozesu berezi bat abiaraztea erabaki zuten sortzaileek. Herritarren proposamenak biltzeko zerrendak jarri zituzten establezimenduetan. Prozesu hartako dokumentazioa eskuratu dugu.

Itzela izan zen erantzuna; 675 proposamen bildu zituzten. Denetarikoz izenak, asko herri hizkeran ahotan sarritan hartutako hitzak, edota udalerri honetako leku izenak. Txiribogako zerrendan herritarrek eginiko ia 200 ekarpenen artean aurki ditzakegu, “Entzun hi!”, “Zizabila”, “Dayola”, “Banitxiek”, “Ezinkaitua”, “Txirikorda”, “Dema”, “Txaramunto”.

Ehunetik gora proposamen bildu zituzten baita Aitzagan; tartean, prozesu honen azken txanpara heldu eta lehia bizia



25 urteotan herritar askoren laguntza eta babesa jaso du NOAUA!k. 1998ko argazkian, sortzaileetako batzuk.

IZENAREN AUKERAKETA

“Herritarrek denetarikoz izenak proposatu zituzten, asko herri hizkeran ahotan sarritan hartutako hitzak, edota udalerri honetako leku izenak”

eragingo zuten bi hautagai; “Diyo”, eta “Noaua!”.

Zerrenda berean aurkitu ditugu baita, “Irisasi”, “Lamaitz”, “Udarregi”, “Baldeu!”, “Nahikuai!”, “Lotsik ez”,

“Eamangoaue”.

Patri tabernan, “Puela”, “Urbil”, “Urdaiaga”. Zendoian (garai hartan “Sunbeltz”) “Puntax”, “Herri berri”, “Noa Hua!”, “Majera”. Udaletxe azpian kokatua zegoen liburutegian “Usurbil aldizkaria” besteak beste. Udaletxean “Hika mika”, “Berriketan”. Parrokian “Kupela”, “Auskalo”. Kale Nagusian kokatua zegoen Sagasti tabernan, “Hemendik”, “Hika mika”, “Ttaka-tteko”. Aizpurua okindegian “Abaraska”. Etxebeste kaleko “Laxoa” kafe-tegian “Iñurkiña” eta “Iñaur-

kiña”. Labe-Txiki okindegian “Irakurtzan/k” edota azken faserako sailkatu zen “Learritz”.

Egungo Benta tabernan (garai hartan K2), “Bota Pinuee”, “Zer esaten didazu?”, “Ahaldeu”. Antxetan “Usurbilko”. “Usurbil”, “Belmont”, hemen ere “Noaua!”, “Tximist”, ondoan kokatua zuen “Usurbil” izeneko tabernan.

Egun NOAUA! Kultur Elkar-tea kokatua dagoen egoitza orduan Gure Pakea elkarte zegoen; “Bordatxo” edota “Distira” proposamenak bildu zituzten bertan.

675 proposamen jaso ziren

Segidan hiru soziedadeetan jasotako ekarpenak. Andatzpen, “Usurbil mintzo”, “Ttakattekko”, “Gaude”, “Usurbilen”... Aginagakoan “Andatza”, “Laiaketan”... Kalezarko Peña Pagolan, “Belmonte”, “Puntapax”, “Kontakatu”, “Ana-erreaka”, “Gazi-gozo-geza”.

Sagardotegietan ere ipini zituzten zerrendak. Saizarren “Hitzurbil”, “Putzurbil”

esaterako. Araetan “Kitto”, “Hemendik”, “Herri berri”, “Usurbiltxo”.

Begira zer zioten jatetxeetan. Zubietako Iruinen “Sagar-zulo”, “Tolare azpi”, “Irrintzi”. Txokoaldeko Zumetan, “Oso hurbil”, “U.H.A. Usurbilgo Herri Aldizkaria”...

Adibide batzuk baino ez dira. Aipaturikoez gain, establezimendu gehiagotan ere jarri zituzten zerrendak. Or-

duko aktetan irakurri ahal izan dugunez, gune batzuetan orrialdeak desagertu ziren, beste zenbaitetan ez zen proposamenik bildu, edota orrialde batzuk jaso gabe ere utzi zituzten.

Halere, bistan denez, bazuten non aukeratua. Ez zuten lan erraza izan. 675 hautagai eta bakarra aukeratu behar. Lau fasetan banatu zuten bozketa prozesua. Lehenbizikorra 8

izen sailkatu ziren, hurrengora lau, gero hiru, eta azken bozketa saiora berdinduta igaro ziren bi hautagai; “Noahoa” eta “Diyo”. Esan beharrik ez da zein izan zen hautatua, baina egokitzea erabaki zuten; “Noahoa”, ezaguna dugun “Noaua!” bilakatu zuten. Bildutako hainbat izen gainera, gerora aldizkari barruko atalak izendatzeko ere baliatu zituzten.

Sudokua

Jose Luis Zumeta gure margolari maitatu-
enetako bat da, eta hain zuzen horregatik, bere
deiturarekin osatu beharko duzu sudokua, alegia
Z, U, M, E, T eta A hizkiekin. Gogoratu hizki




bakoitzak behin
agertu behar
duela lerro,
zutabe eta area
bakoitzeko.



Hitz gurutzatua

Idatzi irudi txikien izenak dagokien arkatzean.
Ondoren, lauki nabarmenduetan egokitu diren
hizkiak hartu eta ordenan jarri behean (goitik
beherakoa errespetatuz). Ongi eginez gero,
Zumeta margolariaren sorterria azalduko zaizu.



Zeeeeer??

Zumetak koadro asko margotu zituen. Beste
margolari oso ezagun baten artelan bat ere izan
zuen gogoan, eta artelan horrek eta gertaerak
inspiratuta, obra bat sortu zuen. Zein zen
margolari ezagun horren artelana? Maripurtzilek
badaki, eta esaten ari zaigu, baina konturatzen ote
da ez diogula putzik ulertzen?

Lasai, ez da-eta larria. Ezaba itzazu B, F, L U, M
eta V guztiak eta hortxe agertuko zaizu.



Hamarrekoa

Aurki itzazu goiko
Zumetaren eta honokoaren
arteko aldeak. Hamar dira
guztira.



Itzala

AI, PELLO! FRUTATXO
BATZUK MARGOTZEKO ESAN
DIZUDANEAN, EZ NUEN HORI
ESAN NAHI!



Zein da
marrazkiaren
itzal zuzena?

Bide batez,
margotu ezazu
zure gustura.



Bota dadoa!

Zazpi dado hauetatik lau bat datoz
irudi zabalduarekin, eta beste hirurak
ez. Zeintzuk dira onak? Asmatzea zaila baldin bazaizu,
irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu.



DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuriak,
domino zati honek
zentzua izan dezan.

Magiaz blai Aginagan

Magia Eguna ospatu zuten Aginagan joan zen larunbatean. Haurrek magia ikusi eta magia ikasteko aukera izan zuten.

Eguerdian dozenaka ume elkartu ziren Eliza Zaharrean magia tailerra egiteko. Papiroflexia eta magian egun erabiltzen diren trikimailu batzuk

ikasteko aukera izan zuten gaztetxoek.

Arratsaldean, "Harritzearen abilezia" izeneko magia ikuskizunaz gozatzeko aukera izan

zuten gaztetxoek. Inoiz ikusi gabeko trikimailuak zuzenean ikusteko aukera izan zuten, eta baita partehartzeko aukera ere Magia Eguna borobiltzeko.



Larunbat eguerdian dozenaka ume elkartu ziren Eliza Zaharrean magia tailerra egiteko.



Larunbat arratsaldean, "Harritzearen abilezia" izeneko magia ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten gaztetxoek.

Pelaxen kontzertua Sutegin



Pelaxek kontzertua eskaini zuen Sutegin, dozenaka ikusleren aurrean. Distantzia eta edukiera neurri murriztaileak deuseztatuta, lagunengozotasunean eta inoiz baino gertuago bizi izan zuten kontzertua bertaratutakoek.

Bakarrizketa Zubietako elizan



Nerea Arriola umoregilea Zubietan izan zen aurreko ostiralean. Bakarrizketa elizan eskaini zuen. Aldaretik aritu zen bertaratu zirenen aurrean. Hasi eta berehala, gaztetan Zubietan dantza aritu zen eguna ekarri zuen gogora. Errausketaren aurka Lady Gagaren kanta bat egokitu zen garaiaz ari zen.

Eskualdean barrena tipi-tapa

Urriaren 17ko giro eguzkituak erakarrita ibiltariak nonahi ikus zitezkeen inguruotan. Tartean Buruntzaldeko Ibilbideen 13. Egunarekin bat egin zutenak. Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek eta tokian tokiko mendizaleen elkar-teen antolaturiko ekimenean

lau udalerriok lotzen dituzten bidezidor eta txoko ederrak hobekiago ezagutu eta ditugu hurbileko altxorrez gozatzeko aukera izan zuten.

Bost ibilbide

Bost bide ziren aukeran, urte osoan bezala seinaleztatuta eta guztion eskura.



Igandean, eguraldia lagun, nonahi ikus zitezkeen ibiltariak.

Lehia bizia giza-proban



Ezkerreko argazkian, pasa den igandeko giza-probako protagonistak. Eskubitara, Txomin Alkorta, txapela eta oroigarriarekin.

Iragan igandean, herri kirolen plaza nagusian bilakatu zen Usurbil. Aurrez aurre, erronka handi baten bueltan lehiatu ziren Usurbil Herri Kirol Taldeko hiru kide; Aimar Zuloaga Segurola, Gabi Sarasola Ibargoyen eta Iurgi Mendiluze Zuloaga, 1.800 kiloko "Urepel" harriari tiraka. Eta haiekin Joseba Sanchez leitzarza 750 kilokoari tira behar

zion. Bi aurkariak 30 minutuko tartearen zuten. Lehia bizia izan zuten. Dena eta gehiago eman zuten, ikusleen aldetik etenik gabe txalo eta animu mezuak jasotzen zituzten artean. Batek nagusitu behar ordea eta azkenean leitzarzak aurre hartu zien usurbildarrei.

Emaizta

■ Joseba Sanchez: 2 plaza,

zinta bat eta 80 zentimetro.

■ Usurbil Herri Kirol Taldea: plaza bat, 10 zinta eta 30 zentimetro.

Igandean emango duten ETBn

Bertaratzerik izan ez duzue nontzat, antolakuntzak plaza-ratu duen oharra: ETBko kame-rek grabatu zuten giza-proba. Urriaren 24an (igandea) goizeko 11:00etan eskainiko du ETB1ek.

Txomin Alkorta Sarriegi omendu zuten

Giza-probara bertaraturikoen txalo artean omendu zuten Egioletako Txomin Alkorta Sarriegi, herri kirolen lehia-kide nahiz eragile gisa, segan bereziki, gazte garaitik jorratu duen ibilbide oparoagatik. 70. hamarkadaz geroztik hamaika garaipen eskuratu zituen Txominek, segan bereziki.



urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko
uzta euskarari puzka



Herriak egiten du herria



Saskien balioaren %25
Nafarroa hegoalde eta
erdialdeko euskalgintzara
bideratuko da



Saski beltza 55€



Saski berdea 65€ eko



Saski zuria 75€

80 urte bete dituzten herritarrek omendu dituzte Gure Pakeak

Gure Pakea Usurbilgo Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak 80 urte bete dituztenak omendu zituen hilaren 9an, Aginaga Sagardotegian eginiko bazkarian. 81 urtekoak ere tartean ziren, pandemia egoera dela eta joan zen urtean omenaldia nahi bezala egiterik izan ez zutelako. Senideez eta lagunez inguratuta ospatu zuten egun berezia omenduek.



Larunbateko bazkarian omendu zituzten herritarrek: Ignacio Arruti Gonzalez, Gloria Franco Calvo, Francisco Garcia Alvarez, Filde Gude Blanco, Jose Loidi Mujica, Narciso Lopez Gutierrez, Constancio Martin Martin, Maria Rosario Menendez Rodriguez, Martin Jose Mindeguia Ezcurra, Angel Nuñez Rodriguez, Luis Roldan Ruiz eta Maria Pilar San Sebastian Arruti.

“Mugimenduan gaude, lurrikara gara”

Kafe Tertulia

Kafe Tertulia duela hainbat urte sortu zen Usurbilgo neskak* biltzeko eta espazio seguru bat sortzeko asmotan. Denbora honetan neska* ugari biltzen aritu gara erronka eta formakuntza ezberdinak aurrrera eramanez.

Pandemiaren eraginez elkartzeko izan ditugun zailtasunen eta indibidualizazioarekin, oso zaila izan da taldearentzat partaide kopurua mantendu eta borrokan jarraitzea. Hala ere, partaide kopuruaren gainbeheraren aurrean, inoiz baino indartsu eta gogotsuago gaude herri hau astintzeko asmoz!

Urriaren 9 eta 10ean Euskal Herriko Neska* Gazteon Baterajotzea gauzatu zen Elizondan. Topaketa hauek Euskal Herriko neska* gazte guztion elkargune izan ziren, geldiezina izango den olatua sortzeko asmoz eta Usurbilgo neska* ere bertan izan ginen.

“Mugimenduan gaude, lurrikara gara” lelopean ospatutako Baterajotzean, neska* gazteok krisi anizkoitzari nola erantzun behar diogun hausnartu genuen, neska* gazte subjektu politikoa berrezugarritzeko eta gure problematika propioak mahai-gaineratzeko.

Momentu berezian ospatu da baterajotzea, mundu mailako pandemia batek eztan-



“Behar beharrezkoa ikusten dugu elkar ezagutu, bizipenak partekatu, indartu eta batera borrokatzea, erronka handiak baititugu aurretik”.

KAFE TERTULIA

“Ikasturteari hasiera emateko, azaroan hasiko gara ekintzak antolatzen herriko neska* saretzeko eta gure taldea herrian ikustarazteko asmotan”

da egin duen momentuan eta sostenga ezina den sistema oso bat inoiz baino ikusgarriagoa egin denean hain zuzen ere. Euskal Herriko Neska* Gazteok bizitzak erdigunean jarri behar direla salatu eta kapitala erdigunean jartzen duen sistema honen aurka borrokatuko dugu.

Euskal Herriko Neska* Gaz-

teon saretzea ez ezik, Buruntzaldeko Neska* Gazteon saretzea izugarria izan da azken hilabeteotan. Honen adibide dira uztailean Usurbilgo Udaregi Ikastolan burututako udaleku feministak. Bertan eskualdeko 55 neska* inguru elkartu ginen tailer eta ekintza ezberdinak aurrera eramanez. Honela, herri ezberdinetako talde txikien ezagutza eta egoera partekatuz elkar elikatzen gara, gure borroka sendotuz eta problematika berdinei modu bateratuan aurre eginez.

Aurrera begira erronka handiei egin nahi diegu aurre elkarrekin, gertu dugun azaroaren 25eko egunean adibidez, kaleak hartuko ditugu emakumeen aurkako indarke-

ria matxista guztiok batera salatuz.

Pandemiaren egoera “amaitutzat” ematen den momentu honetan, gure kezka nagusia jai eremuak dira. Guztiok dakigu espazio hauek zer dakarten: eraso sexistak, gune ez seguruak, beldurrak, ezinegonak,... Aurrez egindako lanketa guztiak bertan behe-geratu ziren pandemiarekin, eta eredu garriak ez diren jaiak ari gara sumatzen azken asteotan, gure inguruan erasoak izan dira. Behin eta berriro esango dugu ez dugula inongo eraso sexista, homofobo, arrazista, xenofobo edo bestelakorik onartuko eta ez dela erasorik egongo erantzunik gabe!

Kafe Tertuliako kideok, ikasturteari hasiera emateko, azaroan hasiko gara ekintzak antolatzen herriko neska* saretzeko eta gure taldea herrian ikustarazteko asmotan.

Horretarako, ezinbestekoa da pandemiak eragindako gainbehera honi aurre egin eta herriko neska* guztiok batzea, gure taldea aberastuz. Behar beharrezkoa ikusten dugu elkar ezagutu, bizipenak partekatu, indartu eta batera borrokatzea, erronka handiak baititugu aurretik. Guztion ardura da berdintasunean oinarritzen den gizarte feminista bat lortzeko parte hartzea eta inplikazioa. Beraz, egon adi gure sare sozial zein kaleko karteletara, zuen zain egongo baikara!

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
barkariak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA (22:00tan itxita)

© 943 362725
© 688 690 361

Covid19ak baldintzaturiko legealdia erdibidera heldu da

2019-2023 legealdia erdibidera heldu den honetan, lehen bi urteotako balantzea plazaratu du Usurbilgo udal gobernu taldeak. 2020. urte hasieran aurkeztu zuten Legealdi Plana eskutan, 130 neurri edo egitasmo bideratzea aurreikusten zuten 2023. urtera arte. Bi urteko tartean, %60,77 gauzatu edo abian dituzte; “30 eta 40 hurrenez hurren”, udal gobernu taldetik zehaztu dutenez.

Kontuan hartzekoa da, Legealdi Plan hartan aurreikusi ezin izan zen aurrekaririk gabeko osasun krisialdi bati aurre egin beharrean aurkitu dela udalerri hau; eta horrek ezohiko erabakiak hartu beharra ekarri du. “Neurri berriak 88 dira, eta horietatik 68 daude martxan edo eginda”, udal gobernu taldearen esanetan.

Guztira, 218 neurri dira, %67,43 gauzatura edo martxan daude. “Proiektu izarak” martxan dituela gogorarazi dute



Legealdiko lehen bi urteotako balantzea plazaratu du udal gobernu taldeak.

LEGEALDI PLANA

218 neurri dira guztira, eta %67,43 gauzatura edo martxan daudela dio EH Bilduk gidatzen duen udal gobernuak

udal gobernu taldetik. Batetik, parte hartze prozesua burutu-ta, obrak amaituta 2023. urte hasieran zabaldu nahi lukete Emakumeen Etxea; garai bere-tuan zabalduko dute baita as-teotan eraikitzen hasi eta Ugar-

tondoko urbanizazio berrian kokatuko den belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa, Txirikorda. Jatorri aniztasunean eta elkarbizitzan sakonduko duen diagnosia landu ostean, hilaren 26an plana aurkeztu eta herri-tarren talde bat osatu nahi dute. Abian dute zaintza-ereduaren inguruko parte hartze prozesua, talde eragilea lanean, baita Oin-herri egitasmoarena ere.

Zapategi eremurako lankide-tza hitzarmena onartua dute Gureak, Balfer eta Michelinek.

Gertuago eta Kultur Bira

Pandemiak ekarritako bi proiektu ere nabarmentzen ditu udal gobernu taldeak; tokiko merkataritza bultzatzeko gertuago.eus ataria eta Kultur Bira, usurbilkultura.eus plataformarekin batera. Memoria eta bizikidetzatza egitasmoa ere abian da, 1936ko gerrak Usurbilen izandako eragina ezagutarazteko proiektuarekin. Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra datorren urtean hasieraz onartu nahi dute. Hondakinen bilketan hobekuntzak txertatzeko neurriak hartu dituzte. Udal zerbitzuen digitalizaziora jauzi egin dute. Herri eta auzoei dagokienez; “Guk Zubietan zer” parte hartze prozesua osatu dute Zubietan, Aginagan Eliza Zarra berritu eta HAPO-aren lanketa bideratu dute, Santuenea eraberritzeko prozesua martxan dute. Kalezarraren aipatzekoa Pelaioenaren bueltan egindako parte hartze prozesua eta auzo elkar-tearen berrakibatzea.

Ezohiko neurri sorta

“Kolektibo eta pertsona zaurgarrienengan” jarria dute arreta EHBilduren esanetan, pandemia hasieratik. Hartutako ezohiko neurrien artean daude: 32 familiek jasotako elikadura bermatzeko ezohiko dirulaguntza deialdia, konfinamendua hasi berritan bete ziren indarkeria sexista pairatzen ari ziren emakumeentzako bi etxebizitza; bakardadea arintzeko 65 urtetik gorako 1.024 herritarrei egindako 800 dei baino gehiago; bina musukoren banaketa etxe guztietan; hondakinen bilketa berezitua berrogeialdian zirentzat; ostalarientzako dirulaguntzak, etendako zerbitzu publikoen

berregokitzea... Komunitatearekin elkarlanean bideratu zituzten Herritarren Babes Sarea, Gertuago kanpaina eta Kultur Bira.

Herri bizitza suspertzea erabaki zuten iazko udazkenean, beharrezko segurtasun neurriak bermatuta.

Laguntza lerro berriak

Baliabideak eta diru-sarrerak gutxitu arren, “egoera zail honetan inoiz baino garbiago izan dugu zer blindatu behar den”. EHBilduren esanetan, “gizarte babesa eta tokikoaren zaintza, izan ekonomikoa, kultura, soziala”. Alor haue-tan aurrean martxan jarritako laguntza lerro berriak nabar-

mendu dituzte; alokairurako, jarduera ekonomiko berriak abiarazteko, Eskola Kirolerako, kultur sormenerako...

Aparteko neurri gehiago ere hartu dituzte; “zaintza ereduari buruzko parte-hartze prozesua, merkatu libreko etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak, oinarritzko eus-kara klaseak adinekoentzat, LGTBI lan ildoak aktibatzea, kotxe konpartitu elektrikoa, saneamendu mahaia osatzea, gazteen enplegu plana aktibatzea (energia teknikaria kontratatuz), Eskola Kirolerako sarbidea errazteko dirulaguntza, errotarri eta mugarrien lanketa, Txokoaldeko Erroizpe aurreko plaza txukuntzea, oi-

nezkoei lehentasuna ematea Zumarte aurrean, Iruin eta Artzabaleta batzen dituen bidea txukuntzea, Zirimara zabaltzen jarraitzea edo Usurbil Suspertuz martxan jartzea”.

Legealdiko Planaren garapena, Usurbiltzen web orrian

Datorren urtera begira, zerga politikan iragarri du “jauzia” udal gobernu taldeak; hobarrien eskaintza nabarmen zabalduko duen 2022ko ordenantza fiskalei esker. Legealdiko Planaren garapen maila ezagutzeko web orrialde bat zabalik du Usurbilgo Udalak eta bertan jaso dezakezue informazio gehiago; usurbiltzen.eus atarian.

Susperraldi ekonomikoa, lehentasuna PSE-EErentzat

2019-23 legealdia erdibidera heldu den honetan ere hitza hartu du PSE-k. Susperraldi ekonomikoa hor-txe Patxi Suarez udal ordezkariaren esanetan, datozen bi urteotarako erronka nagusia, “inor atzean ez uzteko”. Horretarako ezinbestekotzat jotzen du Udalak “ahalik eta babes handiena” ematea herritarrei. “Are gehiago, gure herriaren susperraldi ekonomiko eta sozialerako oinarriak orain lantzen ari garen udal-aurrekontuaren proiektuan jaso behar dira”. Ekarpenik egin nahi duenak pse@usurbil.eus helbidera idazteko deia egin du zinegotzi sozialistak, NOAUA!-ra helarazi duen oharrean.

Iaz onarturiko aurtengorako udal aurrekontuak ekarri ditu gogora PSE-k. Nola “sozialistok, borondate oneko keinu bezala, osoko zuzenketa kendu genuen, udal kontuek jasotzen zituzten partida batzuen agenda independentistarekin ados egon ez arren”. EHBilduren udal gobernu taldearekin “oinarrizko” gaitan elkarlanean aritzeko bere laguntza eskaini ziola dio PSE-k pandemia hasieratik, “herritar guztiei eragiten baitzieten eta aurrera egiteko indar politiko guztien batasuna behar baitzen”.

Ordenantza fiskalak

Bestetik, iraila amaierako udalbatzarrean hobarien eskaintza handitzea ahalbidetzen zuen



PSE-EEK ezinbestekotzat jotzen du Udalak “ahalik eta babes handiena” ematea herritarrei.

USURBILGO PSE-EE

“EHBilduk

aurkeztutako ordenantza fiskaletan kontra bozkatu genuen, nahiz eta hoberi fiskalak izan, uste baitugu tasak eta zergak izozteko unea dela, igoera gutxienekoa izanda ere”

2022ko ordenantza fiskalen aurka bozkatu izanaren inguruan argibideak eskaini ditu. “EHBilduk aurkeztutako ordenantza fiskaletan kontra bozkatu genuen, nahiz eta hoberi fiskalak izan, uste baitugu tasak eta zergak izozteko unea dela, igoera gutxienekoa izanda ere”. Tasak izoztearen helburua, “tokiko ekonomia suspertzea ere bada eta hori herri osoarentzat onuragarria

da”. Suarezaren esanetan, “Usurbilgo ostalaritza, merkataritza, enpresak eta enpleguak mantentzeaz gain, indartu eta enpresa eta lanpostu berriak sortu ere egin nahi ditugu”. Ildo horretan, udalbatzak iraila amaieran hartutako erabakia, suspertze ekonomikorako “gal-dutako aukera” bat da.

Covid19ak kaltetutako pertsonen elkartasuna

Usurbilgo PSE-k, Covid19ak “kaltetutako pertsonak eta haien familiakoak gogorarazi nahi ditu” eta “gure goraintziak eta elkartasuna” helarazi. Iaz baino “hobeto gaudela” oroitarazita, “Usurbil zoriondu” du, eremu berdean egoitegatik. “Pandemiaren joerak beherantz jarraitzen du, eta, hortaz, ez gaude kutsatzeko arrisku handienera”.

Ile-apainketako irakaslea behar dute Oinarrizko

Lanbide Heziketan

Aldi baterako lan deialdiaren berri lanbide.eus atarian aurki dezakezue. Web orrialde honen bidez, edo 945 160 600 telefonora deituta izena eman dezakezue. “Oinarrizko Lanbide Heziketako 2. mailako lanbideko gaiak ematea ikasleen aniztasunari erantzunez, ikasleen integrazioa eta sozializazioa lortze aldera. Lan taldearekin koordinatzea”, hortxe langile berriak egin beharrekoak.

Esperientzia baloratuko da

25 orduko lan astea eskaintzen dute. Lan deialdi honetan parte hartzeko ezinbestekoa izango da, “irudi pertsonaleko lanbide arloko goi mailako teknikaria eta CAP izatea. Irakasle bezala esperientzia izatea Oinarrizko Lanbide Heziketan, enplegarako Lanbide Heziketan edo hezkuntza sisteman”. Horrez gain, euskararen ezagutza eta erabilera bermatuko lukeen 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea izatea. Baloratuko dute baita, “Oinarrizko Lanbide Heziketan edo zailtasunak dituzten nerabeekin esperientzia izatea eskolara ematen”.



Lan deialdiaren berri lanbide.eus atarian topatuko duzue.

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA
SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!
ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA
☎ 943 36 10 79

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

“Meri, Mari eta Lari” Olanoenean arituko dira ostiral honetan

Aste honetan dator NOAUA! Kultur Elkar-teak urtero antolatzen duen Plis, Plas, Txalo eta Jolas. Ostiralean, Olanoenea Plazan eskainiko dute “Meri, Mari eta Lari” haurrentzako ikuskizuna.

Yogurinah Borovaren kantua eta Maria Urzelaiaren ipuin kontaketa uztartzen ditu “Meri, Mari eta Lari” ikuskizunak. Ipuinak sexu eta genero aniztasunari buruzkoak dira, familia eredu ezberdinez, bel-durak bazterteaz eta, azken finean, askatasuna ditu gaitzat. Sexu identitatearen inguruko hausnarketa egitea du helburu.

Adin guztietarako

Meriren haurdunaldiari buruzkoa da ikuskizuna. Haurra izateko denbora asko ez zaio falta eta bere lagun Mari-ekin topo egitean, galdera bat berrazalduko dio lagunari: haurra



Ostiral honetan, arratsaldeko 17:00etan Potxoenea ondoko Olanoenea plazan (euria bada, Sutegin).

MERI, MARI ETA LARI

“Ikuskizuna umeei zuzenduta dago, baina adin guztietako lagunentzat izan daiteke aproposa”

zer izango da neska ala mutila? Hori ez al du umeak berak aukeratu etorkizuneari? Zergatik mugatu bi aukera

horietara? Izan nahi duen guztia izango du aukeran umeak: ameslaria, dantzaria, pilotaria, borrokalaria, jostalaria... Horren guztiaengatik jarriko diote Lari izena. Ikuskizuna umeei zuzenduta dago, baina adin guztietako lagunentzat izan daiteke aproposa, oraindik ere, “denok dugulako sentipenak askatzeko beharra eta gogoa”.

Santueneko jolas eta musika arratsaldea, atzeratua

Azaroak 13, larunbata

■ 16:30-18:30 Trebetasun jolasak musikaz lagundurik.
■ 18:00-20:00 Dj Gorka Mendik zuzenean haur eta gazte- txoentzako musika jarriko du. Tokia: Santueneko eskubaloi plaza eta inguruetan.

Futbol partidak

Urriak 23, larunbata

■ 10:00 Infantil mutilak: Udarregi Usurbil FT B-Euskalduna SD.
■ 12:00 Kadete mutilak: Usurbil FT B-Vasconia.
■ 15:30 Preferente neskak: Usurbil FT-Irauli Bosteko KKE.
■ 17:45 Erregionalak: Usurbil FT-Intxurre KKE.

Eskubaloi partidak

Urriak 24, igandea

■ 10:00 Usurbil K.E.
-Ereintza Beissier
■ 12:00 Usurbil K. E.
-Aiala B ZKE.

Hika lantzeko ikastaroa

Azaroan, asteartero 18:15-20:00 artean Potxoenean, Etumeta AEK euskaltegiko irakasle Rosa Zubeldiaren. 16 lagunentzako lekua egongo da. Aldez aurretik eman beharko da izena, bideotatik: kultura@usurbil.eus/ 943 371 999. Ikastaroa, hika eta hitanoaren erabilera bultzatzeko Udalak eta Euskara Aholku Taldeak iragarritako ekimen bat da baina ez bakarrik. Laster eskainiko dituzte xehetasun gehiago.

Plazan Bazan, 12/13 orrialdeetako soluzioak

Sudokua
Jose Luis Zumeta gure margolari mailatuenetako bat da, eta hain zuzen horregatik, bere deihunekin osatu beharko duzu sudokua, alegia Z, U, M, E, T eta A hizkiekin. Gogoratu hizki margolari ezagun horien artean? Maripatzelek badaki, eta esaten ari zaigu, baina konturatzen eta ez diogula putzik ulertzen?

Lasai, ez da-eta larria. Ezaba itxazu B, F, L U, M eta V guztiak eta hortxe agertuko zaizu.

VLUM BLBL MVLU
PLBICLAMLVSUSBL
BOLBRVLEBLN BLUF
MLMLV

BLQFEMLUR
LLNIVLVLU
VLUVLU

Hitz gurutzatua
Idatzi irudi txikien izenak dagokien artoketan. Ondoren, lauki nabarmendutako egokitu diren hizkiak hartu eta ordenen jami behan (gortik beharrikas arrespetatuz). Ogi eginez gero, Zumeta margolariaren sorterrira azalduko zaizu.

Hamarrekoa
Aurki itxazu goiko Zumetaren eta hongoaren arteko aldeak. Hamar dira guztira.

→ USURBIL

Itzala
AL PILLOL FRUTERO BATZUK MARGOTZEN ESAN STUJANIAN, ET NUN HORT ESAN NABE!

Zer da mamazkian itzel zuzena?

Bide batez, margotu ezazu zure gusfura.

Bota dadoa!
Zazpi dudu hontatik lau bat datur irudi zabalduenekin, eta beste hirurak ez. Zeintzuk dira onak? Asmatzea zaila baldin bezain, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadok muntatu. Aise konturatu zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.

DOMINOAN
Bete itxazu lauki zurik, domino zati hontek zentzu izan dezan.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalearren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705.

Alokairuan

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen da mutil edo neska baten-tzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, mas-kotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonezko bat naiz

eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Zerbitzari euskalduna behar

dugu Olarrondo jatetxean asteartetik ostiralera, eguerditarako soilik. 626 686 036.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera.

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Adinekoak eta haurrak zaintzak edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren

etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabala. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketarako, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonezko bat naiz. 622747833.

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833.

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 616 27 37 85.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egin dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu

eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. Deitu telefono zenbaki honetara 602 481 854 edo email bat idatzi helbide honetara: anisieza@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordutegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

BESTELAKOAK

Urriaren 14an jostiluz betetako ume baten motxila galdu genuen frontoi inguruan. Aurkitu baduzu deitu: 610930826

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko deitu hona 660845780 edo idatzi email bat hona: bouchrahajar@outlook.com

**Zorionak politta!**

8 urte, zure alaitasun eta nortasun horrekin.

Maite zaitugu bihotza.

Ama, aita eta Uxia.

Goardiako farmaziak

Osteguna 21 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 22 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 23 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 24 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 25 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 26 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 27 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 28 ORUE

Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 29 LASA SUQUIA

Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 30 DE MIGUEL

Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 31 DE MIGUEL

Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda urria

22 ostirala

■ **Plis Plas Txalo ta Jolas: "Meri, Mari eta Lari".** 17:00etan Potxoenea ondoko Olanoe-nea plazan (euria bada, Sutegin). Edukiera: 93 lagun. Izen ematea: doan urriaren 20a baino lehen, usurbilkultura.eus plataforman.

23 larunbata

■ **NOAUA! Festa.** 18:30ean Usurbilgo frontoian. Edukiera: 115 lagun. Izen ematea: aurrez usurbilkultura.eus plataforman.

24 igandea

■ **Bertso-ibilaldia sagastietan.** Uxue Alberdi, Andoni Egaña eta Jakoba Errekondorekin. Izen ematea: aurrez alkartasuna@usurbil.com eposta helbidean edo 943 361 114 telefono zenbakian.

Bertso-ibilaldia, sagastietan barrena

Sagardoaren paisaia kulturala eza-gutzeria eman asmoz, bertso-ibilaldia antolatu dute Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak, Usurbilgo Udalak eta Sagardoaren Unibertsitateak igande honetarako.

Goizeko 10:00etan abiatuko da ibilaldia Txokoaldeko aparkalekutik. Inguruko sagastietan osteratxoa egin ahalko dute parte hartzaileek, hiru bidelagun ezagun dituztela; Uxue Alberdi eta Andoni Egañaren bertsoak eta Jakoba Errekondoren azalpenak. Izena aurrez eman daiteke Alkartasuna Kooperatibaren bertan, 943



Igande honetan, goizeko 10:00etan abiatuko dira Txokoaldeko aparkalekutik.

361 114 telefono zenbakian edo alkartasuna@usurbil.com helbidean.

Irudipuinak Sutegin

Udaberrian, bertan behera utzi behar izan zuten Ixabel Agirresarobe eta Martinen saioa. Urriaren 27an asteazkena kenduko dute udaberriko arantza.

Izenburuak dioen moduan, irudia eta kontakizuna uztartuko du hitzorduak. Ixabel ipuin kontalari gisa jardungo da, eta "Mattinek zuzenean irudiak egingo ditu, gailu digital batean. Guk pantaila handian ikusi ahal izango ditugu". 18:00etan hasiko den ekitaldirako izena aurrez bideratu ahalko da usurbilkultura.



Urriaren 27an Sutegin izango dira bi artistak.

eus plataforman. Antolakuntzaren oharra; "6 urtetik beherakoek heldu batekin etorri beharko dute".

Datozenak

Usurbilgo Jatorri Aniztasuna eta Elkarbizitza Lantzen

Usurbilgo Jatorri Aniztasuna eta Elkarbizitza Lantzen diagnostikotik abiatuta, Udalak aurrera begirako urratsen plan bat egin du eta urrats horiek aurkeztuko ditu ekitaldian. Gaian sakontzeko interesa duten herritarren talde bat osatzea ere bada aurkezpenaren helburuetako bat.

Urriak 26 asteartea

■ 18:00etan Sutegiko auditorioan.
■ Izen ematea: urriaren 25a baino lehen, usurbilkultura.eus plataforman.

Urriaren 31n, ordu aldaketa

Erlojuak neguko ordutegira egokitu beharko ditugu urriaren 31n. Goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira. Ordubete gehiago izango dugu gau horretan.



Goizeko 3:00etan 2:00ak izango dira.


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182


ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.eus


JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

IRABAZI BI PERTSONENTZAKO PARAPENTE HEGALDIA

PARTE HARTZEKO:

- Jarraitu instagram-en @gertuago kontua
- Aipatu bi lagun
- Partekatu post hau zure "story"-an

Usurbilgo edozein establezimenduetan kontsumitu eta "story"etan partekatuz gero, **5 ALDIZ GEHIAGO!** sartuko da zuen izena zozketan.

Parte hartzeko epea, urriak 29 arte izango da. Irabazlea azaroaren 2an esango dugul

Gogoratu horretarako mezu pribatuz zuen "story"aren argazkia bidali eta @gertuago etiketatu behar dela.

hurbilag
SURBILGO MERKATARI ETA
STALARIEN ELKARTEA



DRAVETTZARI ERAKUSKETA

URRIAREN 28TIK AZAROAREN 10ERA
URBILEKO ELKARGUNEAN

Gero Axular kultur taldearen dantza ikuskizunetarako soilik diseinatutako euskal jantzi tradizionalen erakusketa, Apoyo Dravet elkartearekin lankidetzan, Dravet sindromeari ikusgarritasuna emateko. Gaixotasun arraro honek zaurgarritasun-egoeran jartzen ditu gaixotasun hori duten pertsonak.



JATORRIA

Aldaketa handien
abiapuntua gara